



# euskal eskola publiko komunitarioa iruten



- ☞ Laikotasun erreala. Erlijioa, hezkuntza egitasmo eta jardueratik at.
- ☞ Hezkuntza egitasmoaren titularrira hirugarren bat baino (enpresa, fundazio edota orden erlijioso), bertako hezkuntza komunitatea izatea hobetsiko da. Parte hartzea bermatuz eta zuzendaritza eredu gerentzialarekin amaituz.
- ☞ Doakotasun erabatekoa, horretarako hileroko kuotek eta kooperatibista izateko kuotek desagertzea jo beharko lukete.
- ☞ Diru publikoaren kudeaketa gardena.
- ☞ Kontratazio batzordeak ezartzea eta berdintasunean, merituan eta ahalmenean oinarritutako hautaketa prozesua bermatzea, kontratazioetan diskriminazio oro ekidinez.
- ☞ Langileen lan baldintzak eskola publikoarekiko homologatzeko trantsizioa.

## 💡 Abiapuntua

LABek bere Hezkuntza Egitasmoa berritzeko prozesua amaitu du. Prozesu parte hartzailean, urtebetez, ehunka lagunek parte hartu dute.

Eskuetan duzu dokumentuaren laburpena, honen helburua, Euskal Herriak behar duen Hezkuntza Sistema propioa iruteko tresna izatea da. Epe motzean, hezkuntza sistemaren agorpenak sortutako arazo larriek (segregazioa, euskalduntzearen moteletzea) erantzuteko eta era berean, etorkizuneko Euskal Eskola Publiko Komunitarioa gaurtik iruteko herri adostasuna lortzeko gure proposamena da.

- ☞ Euskal Herriaren garapena sozial, ekonomiko eta kulturalaren zutabe nagusia da hezkuntza
- ☞ Madril eta Parisetik jasotzen ari garen zapalkuntza larria indartzeko arriskuaurrean, gure hezkuntza sistema publiko komunitarioa eraikitze lanak indartu eta hedatzeko behar gorrian gaude

- ☞ Eraginkorrak izango bagara Hezkuntza Akordioa beharrezkoa da. Behetik gora eraikitako akordioa(k), ikastetxez ikastetxe hasi, Euskal Herri osoko hezkuntza komunitatea eta instituzioak inplikatu arte.
- ☞ Bide oparoa dugu egina. Baina ez da nahikoa. Azken urteotan arazoak eta erronkak pilatzen ari dira. Estatuetatik datozkigun inboluzio jorakerak, euskalduntze prozesuaren mugak, teknologia eta balore berrien eragina, hezkuntzaren azpifinantziak, segregazioa, sexismoaren betiketzea...
- ☞ Gobernu autonomikoez ez dute borondatearik edo ez dira gauza erronka hauei behar bezala heltzeko, gainera, burujabetzarik gabe ezinezkoa zaigu Euskal Herriak behar duen hezkuntza eraikitzea.
- ☞ Eta hori gutxi balitz, hezkuntza komunitatean ez dago gutxienean adostasunik. Zatiketa eta ika-mika garaiek gehiegi luzatzen ari dira.



# iruten



[www.iruten.eus](http://www.iruten.eus)

## 💡 Zer nolako hezkuntza sistema nahi dugu?

- Lehenik eta behin, GUREA izango den hezkuntza sistema nahi dugu, Euskal Herriko hezkuntza sistema, BURUJABEA.
- Euskal hezkuntza sistemaren ardatz gisa, eskola publiko komunitarioa irudikatzen dugu. Espainia eta Frantziako Publikotasun eredu zentralizatetik aldenduz, munduko hezkuntza sistema eredugarrietatik ikasi eta gurea eraikiz:
  - » Euskalduna, feminista, nazionala, publikoa, doakoa, komunitarioa, laikoa, pedagogia berritzailean oinarritua, inklusiboa.

## 💡 Nola sortu nahi dugun hezkuntza sistema?

- TRANSIZIOA gaur egungo egoeratik etorkizuneko hezkuntza sistemara.
- BURUJABETZA, ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA ARDATZ.
- ESKUMEN OSOAK. EAEko zein Nafarroako estatus berriek hezkuntzako eskumen osoak biltzea eta Ipar Euskal Herriko Elkargoa hezkuntzaren gaineko eskumenak hartzen joatea.
- AKORDIOA. Hezkuntza komunitatean hezkuntza sistema propio baten aldeko akordioa egitea.

- KONFLUENTZIA. Egungo eskola publikoaren eta bokazio publiko/komunitarioa duten eskola kontzertatuen arteko konfluentzia estrategikoa defendatzen dugu.
- GAURDANIK. Konfluentziarako urrats zehatzak eman, ikastetxez ikastetxe; sare zehatzak, herriz herri.
- ESTATUS BERRIAK. EAE eta Nafarroan Hezkuntza Lege Berriak, burujabeak. Ezin dugu konfluentzia egin gure hezkuntza sistema ukatzen duten lege Español-Frantsesen arabera.

## 💡 Epe motz-ertainean hartu beharreko neurriak

Konfluentzia prozesu herritar eta parte hartzaile batez hitz egiten ari gara, auzolan erraldoiaz, elkarlanaz, ikastetxe, auzo eta herritako proiektuek, arazo zehatzei irtenbide bateratuak bilatzeaz.

### Hezkuntza esparru osoari begira

- Baliabide publikoak nabarmen handitzea. Ratioak nabarmen jaitsi eskola guztietan.
- Segregazio eta diskriminazio mota guztiekin amaitzeko apustu estrategikoa egitea. Administrazioak inklusiorako beharrezkoen indize bat sortuko du eta horren arabera ezarritako gutxieneko eta gehienezko tartean mugitu beharko dira diru publikoz hornitutako ikastetxe guztiak.
- Diru publikoz hornitutako ikastetxe

guztietan honako irizpide hauek garatuko dira:

- » Euskarazko murgiltze eredu; Hezkidetza; Euskal Curriculum; Pedagogia aktiboak

Ebaluazio hezitzailea; Parte hartzea eta gardentasuna; Laikotasun erreala; Doakotasun erreala.

Herrian txertatua egotea eta herri eragileekin elkarlanean aritzea.

- Udalen parte hartzea indartzea,
- Langileei ezarritako murrizketa oro bertan behera utzi. Lan baldintza egokiak bermatu.
- Berritzeguneak (EAE) nahiz irakasleen laguntza zentroak (Nafarroa) berrantolatzea.

### Egungo sare publikoari begira

Egindako eta egiten ari garen lan handi horretan sakondu beharra dago, oztopoak gaindituz nahi eta behar dugun Eskola Publikoa eraikiz. Egungo eskola publiko-tik, herri eta auzo eskoletan oinarritutako euskal eskola publiko berrirako trantsizioa egin beharra dago. Hori guztia lortzeko, beharrezkoa da:

- Eskola publikoarentzat baliabide nahikoak, bai herrigune handietan baita landa eremuko eskolei dagokionean ere. 0 urtetik hasita doakotasun osoa bermatuz.
- Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari

aurre egiteko, epe jakin batean premiazko plana.

- Eskola publiko autogestionatuak sortzea.
- Eskola publiko guztietan, hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta erabakimena indartzeko neurriak hartzea, Eskola Kontseiluaren erreformatik hasita. Zuzendaritza eredu gerentzialari bidea itxia.
- Laikotasun erreala bermatu beharra dago, hala ospakizunei nola curriculumari dagokionez.
- Hezkuntzako langileen egonkortasuna bermatzea lehentasunezkoa da eskola publikoetan hezkuntza egitasmo sendoak garatu ahal izateko

### Egungo ikastetxe kontzertatuei begira

Eremu kontzertatuan askotariko egitasmoak daude: ikuspegi komunitarioaz aritzen diren egitasmoetatik hasi eta hezkuntza elitista helburu duten horietaraino. Ikuspegi komunitarioz lanean aritzen diren egitasmoak ere gure egitasmoak dira, hauekin euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko akordio estrategikoa egitea proposatzen dugu, beren hezkuntza jarduera bermatzeko beharrezkoa den finantziario publiko jaso. Hezkuntza elitista helburu duten eskolek, aldiz, ez dute diru publikorik jasoko.

- Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean ezaugarri horietako familiak erakartzeko planak.